

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**Foru Gobernu Kontseiluaren 412/2020 Erabakia, irailaren 15ekoa. Onestea Begoña Monforte Martínezek Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren idazkaritzako konfiantzazko eginkizunak dituen behin behineko langile postua uztea**

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 10eko 438/2019 Erabakiaren bidez, Begoña Monforte Martínez izendatu zen, konfiantzako behin-behineko langileek betetzekoa den Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren idazkari lanpostuan.

Nahiz eta behin-behineko langileek beren karguak modu automatikoan uzteko data den konfiantza edo aholkularitza ematen dioten karguak bere postua uztearena, Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen ekainaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan jasorikoarekin bat etorritik, foru administrazioari dagokio esanbidezko ebazpena ematea interesdunarentzat.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikulua esleitutako eskumenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Begoña Monforte Martínez, behin-behineko langileek betetzekoa den konfiantzako lanpostutik kentzea.

Bigarrena. Kargu uzte horrek 2020ko irailaren 8tik aurrera izan zituen ondorioak, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren kargu uztearen, berak hala eskatuta, ondorioz. Hori guztia, erabaki hau ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Hirugarrena. Ebazpen horren kopia zigilatua helaraziko zaio interesdunari.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR